


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**UPV/EHU<sub>n</sub> MUGIKORTASUNA SUSTATZEKO ETA  
IKERKETAREN EMAITZAK DIBULGATZEKO  
LAGUNTZEN DEIALDIA  
(2018)**

## ATARIKOA

Ikerketa bultzatzea eta garatzea dira unibertsitate jardueraren ardatzetako bat. Era berean, ikertzaileen mugikortasuna eta ikerketaren emaitzen dibulgazioa ere jarduera garrantzitsuak dira ikerketa lanean. Gauzak horrela, baliabideak eman behar dira ikerketa jarduerak burutzeko. Ikerketa talde ezberdinetan gerta daitezkeen egoeren aniztasuna eta lan eremu ezberdinak direla-eta, komenigarria da ikerketa komunitateari emandako tresnak nahikoa zabalak izatea.

Deialdi honen bidez, unibertsitateko ikertzaileen mugikortasuna eta UPV/EHUn egindako ikerketen emaitzen komunikazio zientifikoa finantzatu nahi dira, besteak beste.

Xede honetarako 400.000 euro bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako programa kontratuaren barruan "Ikerketa sustatzea eta piztea" helburuari dagokion "1.1. Ikerketa Proiektuak, taldeak eta ekipamendu zientifikoa" ekintzari egokitutako finantzazioan oinarritutako aurrekontu kredituaren arabera; "Nazioartekotze" helburua; 2.1 ekintza "Horizon 2020 eta Europa mailako beste ikerketa programetan eta Erasmus+ ekintzetan UPV/EHUren presentzia sustatzea" eta "banako gaitasun zientifiko-teknologiko-sozialak eta gestiokoak garatu"; 3.1 ekintza "Doktoretza aurreko laguntzak (klasikoa eta COFUND) eta doktoretza ostekoak sustatzea eta ingurune sozioekonomikoan doktoreen inkorporazioa susatzea" eta Ikerketaren Arloko Errektoreordetzaren aurrekontu-kredituaren arabera. Kopuru hau handitu ahalko da aurrekonturik izanez gero.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) bere oniritzia eman, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak jarraian zehazten diren diru laguntzak emateko deialdia argitaratzea erabaki du. Modalitate hauek daude:

- I. modalitatea: ikertzaileen mugikortasuna, 30-150 egunetako egonaldietan.**
- II. modalitatea: nazioarteko elkarte zientifikoetako zuzendaritza postuetan parte hartzea.**
- III. modalitatea: nazioarteko ikerketa proiektuetan parte hartzea sustatzea.**
- IV. modalitatea: kongresu zientifikoak antolatzea.**
- V. modalitatea: ekintza bereziak.**

### 1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen bidez, batetik, unibertsitateko ikertzaileen mugikortasunerako jarduerak erraztu eta sustatu nahi dira, eta, bestetik, ikerketaren emaitzen difusioa sendotu nahi da, UPV/EHUn estatu eta nazioarteko mailako biltzarrak antolatuz.

### 2. oinarria. DEIALDI HONETAKO LAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK

Honako hauek dira deialdi honetan aurreikusten diren laguntzak eskatu nahi dituztenek izan beharreko baldintzak:

- i. Epai irmoz kondenatuta ez egon, diru laguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
- ii. Egunean egon, itzuli beharreko subentzioen itzultzeen ordainketan.
- iii. Ebazpen irmo bidez zigortuta ez egon, lege honen edo beste lege batzuen arabera, diru laguntzak ez jasotzera.

Deialdi honetako edozein modalitatetan aurreikusitako laguntzearako jarduerak egiten dituzten ikertaldeak onuradun izan ahalko dira ikertaldea osatzen duten kide guztiek aurreko baldintza guztiak betez gero.

## **I. MODALITATEA. Ikertzaileen mugikortasuna, 30-150 egunetako egonaldietan.**

### **3. oinarria. EGONALDIEN HELBURUA**

Modalitate honen bidez, ikertzaileei egonaldiak egiteko beste ikerketa zentro batzuetara joateko bidea erraztu nahi zaie. Egondiek gutxienez 30 eta gehienez 150 egun naturalen iraupena izango dute, eta helburu bakar bat: ikerketa jarduerak burutzea.

### **4. oinarria. ESKATZAILEEN ETA MUGIKORTASUNERAKO HARRERA ZENTROAREN EZAUGARRIAK**

Ikertzaileek laguntza hauek jaso ahal izango dituzte, baldin eta UPV/EHUREKIKO enplegu lotura motaren baldintzak eta 4.1 eta 4.2 ataletan jasotako baldintza partikularrak betetzen badituzte.

#### **4.1. UPV/EHUREKIKO LOTURA MOTAK:**

- a. UPV/EHUREKIN lan kontratu iraunkorra duen edo funtzionarioak diren langileak, UPV/EHUn kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHURI atxikita dauden Ikerbasque programako langileak, UPV/EHU-CSIC ikergune mistoei atxikitako doktoreak eta irakasle atxikiak. Horiek guztiek arduraldi osokoak izan behar dute.
- b. Pertsonal ez iraunkorra, UPV/EHUn gutxienez urtebete daramana, bere kontratua edo lotura UPV/EHUREKIN indarrean egongo bada, gutxienez, mugikortasuna amaitu arte.

Ondorio horretarako, besteak beste, hauek hartuko dira langile ez iraunkortzat:

- i. Prestatzen ari diren ikertzaileak, UPV/EHUREN deialdi orokorretakoak, praktikako kontratu aldian daudenak.
- ii. UPV/EHUKO deialdietako doktorego ondoko ikertzaileak.
- iii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak), 22. (doktoreak) eta 23. (itzal handiko ikertzaileak) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUREKIN lotura duten ikertzaileak.
- iv. "Obra/zerbitzu" edo "proiektu jakin baten bidez" kontratatutako ikertzaile doktoreak. Kontratuak lehia bidezko deialdi batean lortutako ikerketa proiektu batekin egon behar du finantzatua, eta egonaldiak zerikusia izan beharko du delako ikerketa proiektuarekin.

Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu 14/2011 legearen 21. eta 22. artikuluetan ezarritakoaren arabera lotura duten eta UPV/EHUKOAK ez diren (Ministerioa, Eusko Jauriaritza...) deialdietako langileak, non eta doktore aurreko edo doktore ondoko kontratua eman zien erakunde horretan mugikortasunetarako hornidura espezifikorik ez duten deialdietakoak diren.

#### **4.2. Eskatzaileen baldintza zehatzak:**

- a. Ikertalde aktibo bateko kide izatea, finantzatua izan ala ez, edo UPV/EHUn bertan egiten ari den ikerketa proiektuen batean parte hartzea, UPV/EHUREN berezko deialdietakoa, Eusko Jauriaritzakoa, I+G+B Plan Nazionalekoa edo Europar Batasunekoak, UPV/EHU izanik proiektuen onuraduna, salbu eta Eusko Jauriaritzaren mugikortasunerako laguntza eska dezaketenean izan ezik.

Doktorego aurreko eta doktore ondoko laguntzak ez dira proiektu aktibotzat joko, baldintza hau betetzeari dagokionez. Ramón y Cajal eta Juan de la Cierva programetako diru laguntzak dira salbuespen bakarrak (Inkorporazioaren modalitatea). Horiek berariazko finantzazioa barne hartzen dute proiektu bat garatzeko, kasuan kasuko kontratua finantzatzeaz gainera.

- b. Laguntzarik ez jaso izana, ez deialdi honetan, ez antzeko besteren batean, bost hilabetez baino gehiagoz, 2017ko urtarriletik 2018ko abendura arte.

Egindako egonaldien aldi metatua bost hilabete baino gutxiagokoa bada, 150 egunetara heltzeko geratzen diren egunetarako eskatu ahal izango da laguntza.

#### **4.3. Harrera zentroaren eta UPV/EHUKO ikertzailea hartuko duen pertsonaren ezaugarriak.**

- a. Harrera zentroak laguntzen onuradunek mugikortasun egonaldian proiektua egingo duten zentroak dira. Harrera zentroak izan daitezke bai unibertsitateak bai bestelako zentroak, baldin eta ikerketa jarduerak egiten badituzte eta diru laguntzaren eskaeran adierazitako proiektuaren arlo zientifikoan prestigio akademikoa eta ikerketakoa badute; hartara, proiektuaren helburu zientifikoak eta hobekuntza profesionala lortzeko bermeak eskainiko dira.
- b. Harrera zentroek, edonola ere, bizilekuz aldatzea eskatuko diote hautagaiari mugikortasunak iraun bitartean.
- c. Harrera zentroaren arduradunak ikerketa esperientzia handia izango du, ikerketa arlo jakin horretan.

## 5. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

5.1. Ostatu eta mantenu gastuak ordaintzeko laguntzen zenbatekoa egonaldia zein herritan egingo den eta zenbat egun naturalekoa izango den kontuan hartuz zehaztuko da. 30 euro ordainduko dira egonaldiko egun ziurtatu bakoitzeko, hasieran baimendutako aldia kontuan hartuta.

Horrez gain, beste kopuru bat ordainduko da, joan-etorriko bidaia bati aurre egiteko, honela banatuta:

Jatorritik helmugara bitarteko distantzia	Gehieneko kopurua
1.000 km arte	300 euro
1.000 eta 2.500 km bitartean	600 euro
2.501 eta 11.000 km bitartean	1.000 euro
11.000 km-tatik gora	1.200 euro

Joan-etorriak egiteko, bisatua izapidetu behar izanez gero, 200 euroko diru-osagarri bat emango da.

Bidaia laguntzak ez du barne hartuko tokiko garraioa.

Ez da finantzaketa gehigarririk emango mediku aseguruaren kontrataziorako, ikertzaileak mota honetako aseguruak eskatzen dituzten herrialdeetara bidaiatzen badu.

Prestakuntza bidean dauden ikertzaileen (4.1.b.i eta 4.1.b.iii ataletan aipatutakoak, azkena 14/2011 Legearen 21. artikulua bidez kontratatuta) kasuan, egonaldien gehieneko iraupena, otorduetarako laguntzen gehieneko zenbatekoa eta joan-etorri gastuetarako laguntza Eusko Jaurlaritzak zehaztuko ditu, ikertzaileak prestatzeko doktorego aurreko programaren barruan egonaldietarako urtero egiten duen deialdian.

5.2. Joan-etorri, ostatu eta mantenuetarako laguntzen gehieneko zenbatekoak gorabehera, zenbatekoak eta horiek justifikatzeko moduak bat etorriko dira **joan-etorria hastean indarrean dagoen zerbitzuengatiko kale-ordainei buruzko UPV/EHUn barne araudiak dioenarekin**.

5.3. Laguntza hauek bateragarriak dira egonaldiekin lotura duten gastuak onartzen dituzten deialdietatik datozenekin, betiere helburu ezberdina baldin badute, hau da, beste administrazio batzuen edo/eta errektoreordetzen mugikortasun edo egonaldietarako laguntzak ez badira. Nolanahi ere, modalitate honetan emandako laguntzak gehi egonaldia/mugikortasuna finantzatzen duten beste laguntzek ezin izango dute faktura originalen kopurua gainditu. Faktura originalak aurkeztu beharko dira hura justifikatzeko.

## 6. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

6.1. Eskaera ikertzaileak egin beharko du bakarka, eta atxikita dagoen saileko edo institutuko kontseiluaren onespina izan beharko du.

6.2. Eskarietan honako hauek ageriko dira:

- a. Arauzko inprimakian egindako eskaria, jardunean hasteko bidaiaren hasierako eguna baino bi hil lehenago aurkeztu beharko dena. Horren ondoren aurkeztuz gero, % 75eko aurrerakina jasotzeko eskubidea gal daiteke, horren likidazioa egonaldia amaieran zuzenean eginda.
- b. Harrerako ikerketa zentroko arduradunaren onarpen gutuna. Gutun hori eskuz sinatuta egongo da, edo baimendutako sinadura digitala izango du. Ez dira onartuko, inola ere, eskaneatutako gutunak.
- c. Harrera zentroan harrera egingo duen ikertzailearen curriculuma. Bide telematikoa aurkeztuko da, ez bestela.
- d. Lizentzia edo Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari lizentzia eskatu izanaren frogagiria. Edonola ere, baimena emana egongo da, deialdi honetako 33.1 oinarrian ezarritako laguntzaren aurrerakina jasotzeko.
- e. Bisatua behar den kasuetan, hura eskatu izanaren ziurtagiria. Edonola ere, bisatua eduki beharko da, deialdi honetako 33.1 oinarrian ezarritako laguntzaren aurrerakina jasotzeko.
- f. Horrez gain, prestatzen ari diren ikertzaileek doktorego tesiaren zuzendariaren edo zuzendarien baimena aurkeztu beharko dute.
- g. Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.
- h. Zinpeko aitortpena, non adieraziko baita eskatzailea ez dagoela deialdi honetako 2. oinarrian aurreikusitako egoeraren batean.

6.3. Eskaerak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 29.1 oinarrian xedatutakoa.

6.4. Laguntza hauek jasotzeko hautagaiek eskaerako dokumentuen bi kopia bidaliko dituzte:

- a. Ale bat, modu telematikoa, [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbidera.
- b. Beste bat, paperean erregistro bidez, helbide honetara:

Ikerketaren arloko Errektoreordetza  
Deialdien atala  
Errektoregoaren eraikina  
Leioa

**7. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Honako hauek dira esleipendunak hautatzeko kontutan hartuko diren alderdiak:

- a. Helburuko zentroan harrera egingo duen ikertzailearen curriculuma (35 puntu).
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculuma, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera kalkulatu dena (35 puntu).
- c. Egonaldian egin beharreko ikerketa jarduera/proiektuaren balioespena (30 puntu).

Finantzazioa jasotzeari begira, eskaera hautagarria izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu, gutxienez.

## **II. MODALITATEA: nazioarteko elkarte zientifikoetako zuzendaritza postuetan parte hartzea.**

### **8. oinarria. LAGUNTZAREN XEDEA**

Modalitate honen helburua UPV/EHUko ikertzaileek nazioarteko elkarte zientifikoek zuzendaritza organoetan parte har dezatela sustatzea da.

### **9. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK**

Laguntza hauek eska ditzakete ondorengo lan lotura izan eta baldintza zehatz hau betetzen dituzten ikertzaileek:

#### **UPV/EHUREKIKO LOTURA MOTAK:**

UPV/EHUREKIN lan kontratu iraunkorra duenak edo funtzionarioak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua araberako kontratatutako pertsona (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUn Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsona, Ikerbasque programari atxikitako pertsona, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsona doktorea eta irakasle atxikiak edo aldi baterako lan kontratadunak, irakasle atxiki ohiak direnak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero. Hauek guztiak arduraldi osokoak izango dira.

### **10. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA**

10.1. Honako gastu hauek sartuko dira: nazioarteko elkarte zientifikoek zuzendaritza organoen biltzarretara joateari eta horietan parte hartzeari loturiko bidaia, ostatu eta mantenu gastuak.

10.2. Esleituko diren zenbatekoek balio maximo hauek izango dituzte:

- Estatu espainiarreko herrietan: 800 € eskaerako.
- Europako herrietan: 1.300 € eskaerako.
- Europatik kanpoko herrietan: 1.900 € eskaerako.

10.3. Norberaren ibilgailua erabiliz gero, eta gehienez ere 2.000 km-tara arte (joan-etorria), kilometro kopuruari dagokion tarifa aplikatuko da, 10.5. atalean adierazitakoaren arabera.

10.4. Laguntzaren adjudikazioa eta ordaintzea ezarritako prozedurari jarraituta egingo da, interesatuek, egindako gastuen justifikazio jatorrizkoekin batera, bileran egotearen ziurtagiria, bilera bera dei egin duenak emana, gehituko dutelarik.

10.5. Aurreko atalean adierazitako laguntzen gehieneko zenbatekoak gorabehera, zenbatekoak eta horiek justifikatzeko moduak bat etorriko dira joan-etorria hastean indarrean dagoen zerbitzuengatik kale-ordainei buruzko UPV/EHUREN barne arautegiak dioenarekin.

10.6. Laguntza hauek ez dira bateragarriak administrazioak eman dezakeen beste edozein diru laguntzarekin, baldin eta helburu bera badute.

### **11. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA**

11.1. Eskaera ikertzaileak egin beharko du bakarka, eta atxikita dagoen saileko edo institutuko kontseiluaren onospena izan beharko du.

11.2. Eskarrietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatuan. elkarte zientifikoak antolatutako biltzarra hasi baino gutxienez 30 egun lehenago aurkeztu beharko da inprimakia.
- b. Dagokion lizentzia eman izana eskaera egin aurretik
- c. Bileraren deialdi ofizialaren kopia eta dagozkion zuzendaritza organoetako kide izatearen egiaztagiriaren kopia.
- d. Ikertzaile eskatzailearen curriculum.

11.3. Deialdi honetako mota hau modu deserdiratuan ebatziko da eta, hortaz, eskariak tokian tokiko campusetan aurkeztuko dira ondoko helbide hauetan

- **Arabako campusa:** Arabako Campuseko errektoreordeari zuzenduta, erregistroaren bidez. Izardui komandantea K. 2. 01005 Gasteiz
- **Bizkaiko Campusa:** eskaera bide telematikoak erabiliz Bizkaiko campuseko errektoreordeari zuzenduta, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzaren webgunearen bidez:  
<http://www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/bidai-poltsak>
- **Gipuzkoako Campusa:** eskaera bide telematikoak erabiliz Gipuzkoako campuseko errektoreordeari zuzenduta, Gipuzkoako campuseko Errektoreordetzaren webgunearen bidez:  
<http://www.ehu.eus/eu/group/gipuzkoa/deialdiak/>

11.4. Eskaerak aurkezteko epea: Ikus 29.1. oinarrian ezarritakoa.

## 12. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Laguntzak esleitzeko proposamenak campus bakoitzean egingo dira, eta campus bakoitzeko errektoreordeak izendatutako batzordeek egingo dituzte.

Eskariak honako hauen arabera balioetsiko dira:

- a. Elkarre zientifikoaren garrantzia (50 puntu).
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculum, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera (50 puntu).

Finantzazioa jasotzeari begira, eskaera hautagarria izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu, gutxienez.

### III. MODALITATEA: nazioarteko ikerketa proiektuetan parte hartzea sustatzea.

#### 13. oinarria. LAGUNTZEN XEDEA

Modalitate honen bidez, nazioarteko partzuergoetan ikertzaileen partaidetza sustatu nahi da, baldin eta partzuergo horien helburua bada nazioarteko programetarako proiektuen inguruko proposamenak prestatzea eta, bereziki, Horizonte 2020 deialdietan parte hartzea, baita nazioarteko plataforma, sare eta elkarteetan ere.

#### 14. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

Laguntza hauek UPV/EHUko ikertzaileek eska ditzakete, betiere, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a. UPV/EHUekin lan kontratu iraunkorra dutenak edo funtzionarioak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua araberako kontratatutako pertsona (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUn Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsona, Ikerbasque programari atxikitako pertsona, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsona doktorea eta irakasle atxikiak edo aldi baterako lan kontratudunak, irakasle atxiki ohiak direnak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero. Hauek guztiak arduraldi osokoak izango dira.
- b. UPV/EHUn egiten ari den ikerketa proiekturen batean edo ikerketan diharduen ikertalderen batean parte hartzea, finantzatuta edo finantzatu gabe egonik, ikerketa proiektu hori UPV/EHUren berezko deialdietakoa edo Eusko Jaurlaritza, I+G+b Plan Nazionala edo Europar Batasunak egindako deialdietakoa izanda, baldin eta UPV/EHU bada proiektuaren finantzazioen onuraduna izanda.

Doktorego aurreko eta doktore ondoko laguntzak ez dira proiektu aktibotzat joko, baldintza hau betetzeari dagokionez.

Salbuespen bakarrak izango dira proiektu jakin bat garatzeko finantzazioa barne hartzen duten Ramón y Cajal, Juan de la Cierva ("Inkorporazioa" modalitatea) eta Ikerbasque programen laguntzak.

#### 15. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

15.1. Laguntzen zenbatekoak burututako jardueraren arabera zehaztuko dira, eta 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean burututako jarduerari lotutako bidaia, ostatu eta mantenu gastuak finantzatzeko emango dira.

Burututako jardueraren arabera esleituko diren zenbatekoek gehieneko balio hauek izango dituzte:

- a. Koordinatzaile gisa proiektu proposamen bat aurkeztu izana nazioarteko programa batean; bereziki, Horizonte 2020 deialdietan: 3.500 € gehienez, aurkeztutako proposamen bakoitzeko. Laguntza horri beste 3.000 € gehitu ahal izango zaizkio, proposamena prestatzeko kontratatutako diren aholkulariei zerbitzu sariak ordaintzeko.
- b. Nazioarteko bileretan parte hartu izana, bileren helburua izan bada partzuergo bat sortzea proiektu proposamen bat aurkezteko nazioarteko programa batean; bereziki, Horizonte 2020 deialdietan: 1.900 € gehienez, aurkeztutako proposamen bakoitzeko.
- c. Nazioarteko plataforma teknologikoen, sareen eta elkarten bileretan parte hartu izana, horien helburua izan bada UPV/EHUrentzat interesgarriak diren I+G+Bko estrategia kolektibo sektorialak sustatzea: 1.900 € gehienez, akreditatutako kide bakoitzeko.
- d. Erakunde ofizialek work programmes direlakoak eta proposamenak ebaluatzeko irizpideak parte hartzaileei ulertarazten laguntzeko antolatutako topaketetan parte hartu izana. Topaketa horiek ideien eta esperientzien trukea erraztu, eta partzuergo bat osatzeko balizko kideak ezagutzeko aukera ematen dute: 1.400 € gehienez, ikertalde bakoitzeko.

15.2. Laguntza hauek bateragarriak dira administrazioak xede eta helburu berarekin eman lezakeen beste edozeinekin.





## **16. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA**

16.1. Eskaera ikertzaileak norberaren izenean bidali beharko du [proyctoseuropeos@ehu.eus](mailto:proyctoseuropeos@ehu.eus) helbide elektronikora.

16.2. Eskarietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskaria inprimaki normalizatuan.
- b. Sail edo institutuko zuzendariaren baimena.
- c. Laguntzaren xede den jardueran parte hartzeko gonbidapen gutuna.
- d. Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.

16.3. Eskaerak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 29.1 oinarrian xedatutakoa.

## **17. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

17.1. Eskariak honako hauen arabera balioetsiko dira:

- a. Egin beharreko jardueraren garrantzia:
  - i. Nazioarteko programaren bateko deialdian elkarlaneko proiektu baterako proposamena aurkeztea koordinatzaile gisa (60 puntu).
  - ii. Nazioarteko batzarretan parte hartzea. Batzar horien xedea partzuergo bat eratzea izango da, nazioarteko programaren batean proiektu proposamen bat aurkezteari begira (40 puntu).
  - iii. Nazioarteko plataformetako bileretan parte hartzea (40 puntu).
  - iv. Erakunde ofizialek work progammeak eta proposamenak ebaluatzeko irizpideak ulertarazteko antolatutako topaketetan parte hartu izana (40 puntu).
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculuma, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera (60 puntu).

17.2. Finantzazioa jasotzeari begira, eskaera hautagarria izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu, gutxienez.

#### **IV. modalitatea: kongresu zientifikoak antolatzea.**

##### **18. oinarria. KONGRESUAK ANTOLATZEKO LAGUNTZEN HELBURUA**

Modalitate honen bidez, biltzar zientifikoan antolaketa bultzatu nahi da UPV/EHUn, nazioartean gure unibertsitatearen irudia eta presentzia areagotze aldera, inguru ekonomiko eta sozialean.

##### **19. oinarria. KONGRESUEN EZAUGARRIAK**

Kongresu zientifikoak antolatzeko laguntzak eskatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a. Ahal dela, biltzarrak UPV/EHUren instalazioetan egin eta biltzarren antolatzaile gisa UPV/EHU agertzea. Salbuespen gisa, biltzar bat UPV/EHUtik kanpo egin ahal izango da, behar bezala justifikatuz gero.
- b. Ekitaldiek nazioarte edo nazio mailakoa izan behar dute, eta ebaluazio batzordeak baloratu beharko du garrantzi zientifikoa. Estatuko edo nazioarteko izaera deialdi honetako 23.a oinarrian ezarritakoaren arabera egiten den ebaluazioan zehaztuko da.
- c. Batzorde zientifikoa edukitzea. Batzorde horrek deialdi ireki baten bidez jasotako txostenak ebaluatu eta hautatuko ditu.
- d. Kongresua txandaka estatuko edo nazioarteko beste unibertsitate zein ikerguneetan antolatu edo egingo da.
- e. Biltzarren aurrekontua inskripzio kuotekin finantzatuta egotea nahitaez. Kuoten edo babesle pribatuen bidez lortutako finantzaketa osoa biltzarreko aurrekontuaren % 30 izango da gutxienez.
- f. Kanpoko erakunde batek biltzarra diruz laguntzen badu edo inskripzio kuotak biltzen baditu UPV/EHUren bankuko kontuetan sarrerarik eragin gabe, zenbateko hori biltzarren aurrekontuan sartuko da ondorio guztietarako, UPV/EHUren kontabilitate ofizialean ez izatzeko aukera eragotzi gabe.

##### **20. oinarria. IKERTALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK**

Ikertaldeak UPV/EHUrekiko enplegu lotura motari buruzko baldintzaren bat (20.1 atala) eta taldeak osatzeko baldintzak (20.2 atala) betetzen dituzten ikertzaileek osatuko dituzte:

###### **20.1. UPV/EHUrekiko lotura motak:**

- a. UPV/EHUekin lan kontratu iraunkorra dutenak edo funtzionarioak direnak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua araberako kontratatutako pertsona (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUn Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsona, Ikerbasque programari atxikitako pertsona, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsona doktoa eta irakasle atxikiak edo aldi baterako lan kontratadunak, irakasle atxiki ohiak direnak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero. Hauek guztiak arduraldi osoak izango dira.
- b. Pertsona ez iraunkorra, UPV/EHUrekiko kontratua edo lotura, gutxien dela, kongresua amaitu arte izango duena.

Ondorio horretarako, besteak beste, hauek hartuko dira pertsona ez iraunkortzat:

- i. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. (doktozero aurreko kontratuak) eta 22. (doktozeroak) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUekin lotura duen pertsona.
- ii. UPV/EHUko deialdietako doktozero ondoko ikertzaileak eta Eusko Jaurlaritzakoak.

Prestakuntza bidean dauden doktozero aurreko ikertzaileei dagokienez, doktozero tesiaren zuzentzaileak kongresuaren antolaketa taldeko kide beharko du izan.

- c. Ikerkuntzarako lankide akademikoa, unibertsitatearen arautegian ezarritako prozedurekin bat etorrita.

## 20.2. **Ikertaldeak osatzeko baldintzak:**

- a. Eskaera egiten duen ikertaldeak, gutxien dela, 20.1.a. atalean aipatutako kolektiboetako hiru doktore izango ditu osakide.
- b. Hiru kideek UPV/EHUn bertan burutzen ari den proiektu edo ikertalderen batean parte hartu beharko dute, eta delako proiektuak UPV/EHUren berezko deialdietakoa, Europar Batasuneko, I+G+B Plan Nazionalakoa edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Planakoa izan beharko du.
- c. 20.2.a atalean aipatutako hiru kideetako bat eskaeraren koordinatzailea izango da. Pertsona horrek koordinatzaile gisa agertu beharko du biltzarra bera finantzatzeko beste erakunde batzuetan aurkezten diren eskabide guztietan.

## 21. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

21.1. Esleituko den laguntzaren zenbatekoa jarduera burutzeko kontabilizatutako gastu osoaren %25 izango da, gehienez. Zenbatekoa ez da inoiz izango 6.000 €-tatik gorakoa, nazioarteko biltzarren kasuan, ez eta 3.000 €-tatik gorakoa ere, estatuko biltzarren kasuan, eta 19.e oinarrian kuota eta babesletza pribatu kontabilizatuei buruz ezarritako % 50eko muga errespetatuko da. Nolanahi ere, laguntzaren zenbatekoa kuota ordaindu duten pertsonen kopuruaren arabera izango da. Hortaz, justifikazioa egiterakoan, ziurtagiri bat aurkeztu beharko da, kongresura joandakoen eta ordaindutako kuoten kopuruak azalduz.

21.2. UPV/EHUko langileei ezin izango zaizkie ordaindu soldata osagarriak edo ordainsariak, deialdi honetako laguntzak jasotzen dituzten biltzarretan parte hartzeagatik. Ezingo dira kongresuko gastu gisa jo hizlarietara egindako ordainketak.

21.3. Laguntza hauek bateragarriak dira UPV/EHUK xede eta helburu berarekin eman lezakeen beste edozeinekin.

Biltzarra amaitu ondoren superabita izanez gero, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak hartuko du.

21.4. Biltzarretarako laguntzaren erabilerak honako muga hauek izango ditu:

- a. Esleitutako laguntza biltzarrerako erabiliko da, inskripzio kuotak kobratzen diren eta benetan jasotako babesletza pribatuen proportzio berean.
- b. Kuotak eskaeran aurreikusitakoaren arabera kobratuko ez balira, Errektoreordetzak kendu ahal izango du laguntzaren zati bat, kobratutako kuoten benetako ehunekora egokituta.
- c. Diru laguntza ez da erabiliko, otorduak, ekintza ludikoak, protokolo gastuak edo partaideentzako opariak ordaintzeko, ez baitira gastu hautagarritzat joko. Dena den, gastutzat joko da "coffee break" delakoa.
- d. Halako gasturik egonez gero, UPV/EHUK ordaindutakoaz gaindiko finantzaketarekin eta halako gastuak berariaz kanpo uzten ez dituzten beste laguntza batzuekin ordaindu ahal izango dira, bestela ez. Honez gain, kontutan hartu behar da, gastu hautagarriak ez direlarik, ezin daitezkeela erabili izen emateko kuoten eta babesle pribatuen %50a kalkulatzeko.
- e. Gastuen artean ikasleei bekak ematea aurreikusten bada, gastu hori hautagarritzat hartzeko ezinbestekoa izango da diru kopuruak eta horiek emateko irizpideak aipatzea eskaeran eta biltzarraren dokumentazioan.

## 22. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

22.1. Eskaera jarduera koordinatzen duen ikertzaileak aurkeztu beharko du.

22.2. Eskarrietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskaera inprimaki arautuan, gutxien dela, kongresua hasi baino bi hilabete lehenago aurkeztu beharko dena.

- b. Biltzarraren aurreko egitaraua, batzorde zientifikoaren eta batzorde antolatzailearen zerrenda, eta txostenen deialdia (*call for papers*).
- c. Ikerketa-taldeak lituzkeen kofinantzaketarako dokumentuak (emanak edo eskatuak)
- d. Biltzarraren aurrekontu osoa justifikatzen duen dokumentazioa.
- e. Talde eskatzaileko bi kideren curriculum osoa.
- f. Biltzarra UPV/EHUren aretoetan egiten ez bada, horren justifikazioa.
- g. Zinpeko aitortpena, non adieraziko baita eskatzailea ez dagoela 2. oinarrian aurreikusitako egoeraren batean, taldeko kide guztiek sinatuta.

22.3. Eskaerak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 29.1 oinarrian xedatutakoa.

22.4. Laguntza hauek jasotzeko hautagaiek eskaerako dokumentuen bi kopia bidaliko dituzte:

- a. Ale bat, modu telematikoan, [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbidera.
- b. Beste bat, paperean erregistro bidez, helbide honetara:

Ikerketaren arloko Errektoreordetza  
Deialdien atala  
Errektoregoaren eraikina  
Leioa

### **23. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Esleipendunak hautatzeko, kontuan hartuko dira irizpide hauek:

- a. Biltzarraren kalitatea eta aintzatespena nazioartean (35 puntu).
- b. Jarduerak batera finantzatzeko funtsak izatea (30 puntu).
- c. Talde eskatzailearen ekoizpen zientifikoa (35 puntu).

Finantzazioa jasotzeari begira, eskaera hautagarria izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu, gutxienez.

## V. MODALITATEA: Ekintza Bereziak

### 24. oinarria. HELBURUA

Modalitate honen bidez, ikerketa jarduerari loturiko esku hartze berezi eta puntualen bat eskatzen duten helburu zientifikoak ordaindu nahi dira.

Ez dira "ekintza berezizat" hartuko honako hauek:

- Kanpoko elkarte edo erakunde baten finantzaketa, aurretik den proiektu batekin zuzeneko lotura izan arren.
- Azpiegiturak eskuratzea, aldatzea edo handitzea.
- Ikerketa proiektu berrizat edo abian den proiektu baten osagarritzat har daitekeen ikerketa jarduera.
- Ikastaroak antolatzea eta haietara joatea.
- *Workshop*ak antolatzea.
- Ikerketa zentroetan egonaldiak egitea.
- Ikerketa jardueran sortutako ikerketako emaitzak argitaratzea, salbu JCR, Scopus edo antzeko sailkapenen goi inpakturako aldizkarietarako eta egileetako inork ez duenean parte hartzen finantzaketarik duen ikerkuntza jardueretan.
- Kanpoko zerbitzuak kontratatzea.

Aurretik ezarritako hori alde batera utzi gabe, IGBBk proposatutako ekintza bereziak apartekoak edo salbuesenezkoak diren aztertuko du oso kasu zehaztuetan.

### 25. oinarria. IKERTALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

Ikertaldeak UPV/EHurekiko enplegu lotura motari buruzko baldintzaren bat (25.1 atala) eta taldeak osatzeko baldintzak (25.2 atala) betetzen dituzten ikertzaileek osatuko dituzte:

#### 25.1. UPV/EHurekiko lotura motak:

- a. UPV/EHurekin lan kontratu iraunkorra dutenak edo funtzionarioak direnak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 23. artikulua araberako kontratatutako pertsona (itzal handiko ikertzaileen kontratua), UPV/EHUn Ramón y Cajal programaren barruan kontratatutako pertsona, Ikerbasque programari atxikitako pertsona, UPV/EHU eta CSICen arteko gune mistoetara atxikitako pertsona doktoa eta irakasle atxikiak edo lehenago izandakoak, lanpostu iraunkor baterako akreditatuta egonez gero. Hauek guztiak arduraldi osoak izango dira.
- b. Pertsona ez iraunkorra, UPV/EHurekiko kontratua edo lotura, gutxien dela, ekintza berezia amaitu arte izango duena.

Ondorio horretarako, besteak beste, hauek hartuko dira pertsona ez iraunkortzat:

- i. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. (doktozero aurreko kontratuak) eta 22. (doktozeroak) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHurekin lotura duen pertsona.
  - ii. UPV/EHUko deialdietako doktozero ondoko ikertzaileak eta Eusko Jaurlaritzakoak.
- Prestatzen ari diren doktozero aurreko ikertzaileen kasuan, beren doktozero tesiaren zuzendariak proiektuaren taldeko kide izan behar du.
- c. Ikerkuntzarako lankide akademikoa, unibertsitatearen arautegian ezarritako prozedurekin bat etorrira.

## 25.2. **Ikertaldeak osatzeko baldintzak:**

- a. Eskaera egiten duen ikertaldeak, gutxien dela, deialdi honetako 25.1.a. atalean aipatutako kolektiboetako hiru doktore izango ditu osakide.
- b. UPV/EHUn bertan burutzen ari den jarduneko proiektu edo ikertalderen batean parte hartzea, UPV/EHUn berezko deialdietakoa, Eusko Jaurlaritzakoa, I+G+B Plan Nazionalekoa edo Europar Batasuneko, UPV/EHU izanik proiektuen finantzaketaren onuraduna, salbu eta finantzaketarik ez duten ikerketa jardunen emaitzen inguruan inpaktu handiko aldizkarietan egindako argitalpenek eragindako gastuak badira.
- c. 25.2.a atalean aipatutako hiru kideetako bat eskaeraren koordinatzailea izango da.

## 26. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

26.1. Laguntzen gehieneko zenbatekoa 3.000 euroakoa izango da.

26.2. Mugikortasun deialdi honen onura jasotzen duten ekintza berezietan parte hartzen duten UPV/EHUko langileei ez zaizkie emango soldata osagarriak edo ordainsariak.

26.3. Modalitate honetako laguntzak bateragarriak dira beste entitate finantzatzaile batzuek emandakoekin, baldin eta jarduera burutzeko finkatutako aurrekontu osoa gainditzen ez bada, deialdi honen helburuak eta xedeak eta kontrakoa esan dezaketen gainerako deialdien xedapenak eragotzi gabe.

## 27. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

27.1. Eskarrietan honako hauek ageriko dira:

- a. Eskaria inprimaki normalizatuan.
- b. Talde eskatzaileko bi kideren curriculum osoa.
- c. Zinpeko aitortpena, non adieraziko baita eskatzailea ez dagoela 2. oinarrian aurreikusitako egoeraren batean, taldeko kide guztiek sinatuta.

27.2. Eskaerak aurkezteko epea: ikus deialdi honetako 29.1 oinarrian xedatutakoa.

27.3. Laguntza hauek jasotzeko hautagaiek eskaerako dokumentuen bi kopia bidaliko dituzte:

- a. Ale bat, modu telematikoan, [convocatorias.dgi@ehu.eus](mailto:convocatorias.dgi@ehu.eus) helbidera.
- b. Beste bat, paperean erregistro bidez, helbide honetara:

Ikerketaren arloko Errektoreordetza  
Deialdien atala  
Errektoregoaren eraikina  
Leioa

## 28. oinarria. ESKABIDEAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

28.1. Eskatutako ekintzak ondo justifikatu behar du zergatik ezin den beste deialdi publiko batzuen bidez finantzatu. Irizpide hori bete egin behar da, finantzaketa lortu nahi bada. Irizpide hau bete beharrek da finantzaketarik lortu nahi bada.

28.2. Balioespena egiteko irizpide hauek baliatuko dira:

- a. Proposamenaren kalitate zientifikoa eta teknikoa (helburuak, eduki berritzailea, metodologia, lan plana...), eta haren bideragarritasuna, talde eskatzailearen ikerketarako ahalaren arabera (40 puntu).
- b. Eskaeraren arduradunak eta gainerako taldekideek aurrez eginiko ikerketa jarduera eta jarduera horren kalitatea. Taldearen kalitatea, tamaina, osaketa eta arduraldia balioztatuko dira (30 puntu).
- c. Eskatutako baliabideak proposatutako helburuetara egokitzea (30 puntu).

Finantzazioa jasotzeari begira, eskaera hautagarria izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu, gutxienez.



## LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA OROKORRA

### 29. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

29.1. Deialdi honetako modalitate ezberdinak irekita egongo dira hurrengo deialdia, honako hau ordeztuko duena, argitaratu arte edo esleitzeko dagoen kreditua agortu arte. Honela gertatuz gero, behar bezala iragarriko da, guztiek jakin dezaten.

29.2. Modalitate guztietan, dagokion eskaerarekin batera, zinpeko adierazpena aurkeztuko da, 2. oinarrian ezarritako egoeraren batean ez gotearen berri adierazteko.

- a. I., II. eta III. modalitateetan, adierazpena laguntzaren eskatzaileak sinatuta egongo da.
- b. IV. eta V. modalitateetan, adierazpena jarduera egingo duen taldeko kide guztiek sinatuta egongo da.

### 30. oinarria. LAGUNTZAK GESTIONATZEKO ORGANOAK

Ikerketaren arloko errektoreordeak, Ikerketarako zuzendaritzaren bidez, deialdi honetako I., IV. eta V. modalitateetan aurreikusitako laguntzak kudeatuko ditu; Ikerketaren arloko errektoreordeak, Nazioarteko I+G bulegoaren bidez, III. modalitatekoak kudeatuko ditu; eta, campuseko errektoreordetzak, berriz, II. modalitateko laguntzak kudeatuko dituzte.

### 31. oinarria. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA

31.1. Deialdiko modalitate guztietarako eskaerak edozein unetan aurkez daitezke, deialdia indarrean dagoen bitartean.

Hala ere, laguntzak eman edo ukatuko dira, horiek onartzeko bideari jarraiki:

- a. I., IV. eta V. modalitateetako eskaerak. Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak ebaluatzen ditu; hortaz, horiek berrikusi ahal izateko, batzordea noiz biltzen den hartu beharko da kontuan, Batzordearen barne araudian ezarritakoaren arabera.
- b. II. eta III. modalitateetako eskaerak. Eskaeren inguruko erabakia campuseko errektoreordetzak eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ematen dute, zuzenean, eta, horrela, azkar erantzun dakieke jasotako eskaerei.

31.2. Aurkeztutako eskaerak ebaluatzeko, modalitate bakoitzeko ataletan zehaztu diren irizpideak erabiliko dira. Hala behar izanez gero, kanpo ebaluazioak egingo dira, jakintza arlo bakoitzeko aditu independenteen bidez.

31.3. Ebaluazio prozesuan eskaerak ebaluatzeaz arduratzen den organoak edo, hala badagokio, kanpoko ebaluatzaileek hala proposaturik, aurkeztutako eskaeretan aldaketak egitea proposatu ahal izango die eskatzaileei, deialdi honen helburuetara hobeto egokitzeke. Ebaluazio prozesuan ikertaldeko buruari ebaluatzaileekin biltzeko eskatu ahal izango zaio, eskaeraren inguruko azalpen eta xehetasun gehiago emateko.

31.4. Ebaluatzaileen ustez aurrekontu handiegia behar duten eta proposatutako iturrietatik diru laguntza lortzea zail duten eskaerei laguntza ukatu ahal izango zaie.

31.5. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egindako deialdietan, ikertzaileek UPV/EHUren bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa.

Baldin eta euskaraz aurkeztutako agiriak euskaraz ez dakiten ebaluatzaileek ebaluatu beharra dagoela erabakiz gero, Ikerketaren arloko errektoreordetza eskatzailearekin jarriko da harremanetan bi aukera hauek eskaintzeko:

- a. Eskatzaileari denbora gehigarri bat ematea agiriak gaztelaniara edo ingelesera itzultzeko.
- b. Errektoreordetzak enpresa espezializatu bati agintzea agiriak itzultzeko. Kasu horretan ere, eskatzaileak behar adinako denbora izango du itzulitakoa balidatzeko, ebaluatzaileei bidali aurretik.

### 32. oinarria. EBAZPENA

32.1. 1. I., IV. eta V. modalitateetan parte hartuko duen UPV/EHUko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak, ebaluazioa egin ondoren, Ikerketaren arloko errektoreordeari aurkeztuko dio laguntzak esleitzeko proposamena.

32.2. II. modalitateari dagokionez, campusetako errektoreordetza bakoitzean eraturako batzordeak, ebaluazioa egin ondoren, campusetako errektoreordeei aurkeztuko diete laguntzak esleitzeko proposamena. Deialdi hau gehienez bi hilabetetako epean erabakiko da, eskaerak aurkezteko egunetik zenbatzen hasita. Aipaturako epean berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaerak ezetsi egin direla ulertuko da.

32.3. III. modalitateari dagokionez, Nazioarteko I+G Bulegoak laguntzak esleitzeko proposamena bidaliko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, hamabost eguneko epean gehienez, eskaerak aurkezteko egunetik zenbatzen hasita. Aipaturako epean berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaerak ezetsi egin direla ulertuko da.

32.4. Ikerketaren arloko errektoreordearen ebazpen nominalaren bidez jakinaraziko zaio ikertzaile bakoitzari ukaturako edo onartutako eskaera bakoitzari buruz erabakitakoa, bai eta kasuan kasuko zenbatekoen berri eman ere. Hala eskatuz gero, ebaluatze eta hautatzeko irizpide bakoitzean lortutako puntuazioaren berri emango zaie eskatzaileei. Nolanahi ere, ezespren partzial zein osorik daramaten erabakiak arrazoituak izango dira.

32.5. Adjudikazioaren gaineko erabakian, emandako laguntza bakoitzari buruz honako hauek aipatuko dira:

- Ikertzaile nagusiaren izen-deiturak.
- Zer sailetakoa edo zer institututakoa den.
- Jardueraren izenburua.
- Proiektuak iraungo duen urte bakoitzerako izendatutako zenbatekoa, halakorik behar izanez gero.

32.6. Aipaturako erabakiaren kontra berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, erabakia hartu duen organoaren aurrean Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 123. eta 124. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz. Era berean, erabakiaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da. Horretarako, bi hilabetetako epea egongo da, erabakia iragarri eta hurrengo egunetik hasita.

### **33. oinarria. DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK**

33.1. I. modalitatean, esleitutako zenbatekoaren % 75 ordainduko zaio eskatzaileari, emateko erabakia argitaratu ondoren. Gainerakoa jarduera egin, eta gastuen justifikazioa aurkeztu eta onetsi ondoren ordainduko zaio.

Eskaera aurretiko bi hilabeteren ondoren aurkeztuz gero, %75eko aurrerakina jasotzeko eskubidea gal daiteke, horren likidazioa egonaldia amaieran zuzenean eginda.

33.2. II. modaliterako, laguntzaren ordainketa gastuen justifikazioa aurkeztu ondoren egingo da. Ikertzaileek justifikazioa aurkezteko hamabost egunetako epea izango dute, bidaiak egin eta gero. Gehieneko zenbatekoa erabakian adierazitakoa izango da.

Egindako gastuak justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- i. Egindako gastuaren ziurtagiri originala.
- ii. Behar denean, nazioarteko plataformetan lortutako emaitzen txosten laburra.

33.3. IV. eta V. modalitateetan, diru jarduera kudeatzeko ORGANIKOARI esleitutako zenbatekoaren % 100eko kreditu zuzkiduran zehaztuko da laguntza, erabakia argitaratu ostean. Edonola ere, zuzkidura modu proportzionalean emango da benetan jasotako kuotei eta babesletza pribatuei buruz 19.e atalean zehaztutakoaren araberrako sarrerekiko, deialdi honetako 21.4a atalean ezarritako mugak albo batera utzi gabe.

Jarduera burutzen denean eta amaierako txostena eta eginiko gastuen justifikazio osoa aurkeztu ostean, sarreraren eta gastuen balantzea egingo da, eta jarritako kreditutik erabili ez den diru kopurua Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdi bereko diru laguntza berrietan erabiliko da.

33.4. I., II. eta III. modalitateetan eginiko gastuen justifikazio gisa, laguntza eskatu dutenek eginiko ordainketen agiriak aurkeztu beharko dira:

- a. Bidaiak: bidai gastuak egiaztatzeke, eskatuko dira jatorrizko billete, ontziratze txartel eta tiketak aurkezteko, ordainketaren faktura edo frogagiriez gainera.  
I. modalitatean ez dira bidai txartelak onartuko egonaldia hasi baino 15 egun lehenagokoak edo horren aurrekoak badira, edo egonaldia amaitu eta 15 egun igaro ondorengoak badira.
- b. Ez da onartuko ibilgailuak alokatzeko egindako gasturik.
- c. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, egiaztagiria gisa gorde beharko dira autopistetako agiriak edo antzekoak, hau da, joan-etorri horiek justifikatzen dituztenak.
- d. III. modalitaterako, lehen esandakoaz gainera, ostatu eta mantenu gastuen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, norako herrialde bakoitzean baimendutako gehieneko mugak kontuan hartuta.

#### **34. oinarria. JARRAIPENA**

34.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak antolatuko du, Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzaren bidez, diruz lagundutako eskaeren jarraipena egiteko prozedura.

34.2. Amaierako txostena. Laguntzaren xede den jarduera amaitu eta hurrengo hiru hilabetetara (IV. modalitatean izan ezik, non epea 6 hilabetekoa izango den), amaierako txosten bat egingo dute horretarako emango den inprimaki batean. Ikertzaile nagusiak sinatu beharko du txostena, eta haren sail edo institutuko zuzendariak onespena eman beharko dio. Amaierako txostenean jarduera horretan eginiko gastu guztiak eta gastu horien frogagiriak jasoko dira.

I. modalitateko laguntzei dagokienez, harrerako ikerketa zentroaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Bertan, egonaldiaren datak adieraziko dira, eta gauzatutako jardueren deskribapen labur bat.

34.3. Amaierako ebaluazioa. Azken txostena hartu ondoren, lortutako emaitzen ebaluazioa egingo ahal da.

34.4. Aldaketak. Jarduera egin duen taldeko kideak edo helburu orokorrak aldatu badira, proposatutako aldaketentzat hitzemandako diru laguntzak aldatu edo ezeztatu behar diren ala ez erabakiko da, IGBBk dagokion txostena egin ondoren.

34.5. IV. eta V. modalitateetarako, gastua modu deszentralizatuan egingo denez, faktura originalak jarduera gauzatzeaz edo biltzarra antolatzeaz arduratuko den ikertzaile nagusiaren sailean edo institutuan artxibatuko dira, eta eskuragarri egongo dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko barne auditoretzako zerbitzuak, kontrol ekonomikorako bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak informazioaren bat eskatzen dutenerako edo egiaztapenen bat egin nahi dutenerako deialdi honen kargura jasotako laguntzei buruz.

Ez da inola ere fotokopiarik onartuko, jatorrizko dokumentuak galdu direlakoan.

34.6. Jarduera gauzatzeko epearen barruan egindako gastuak besterik ezin izango zaio egotzi proiektuari; hau da, epe horretan egiazki egindako erosketak, bidaiak, lanak, eta abar.

#### **35. oinarria. EMAITZEN BERRI EMATEA ETA EMAITZEN USTIAKETA**

35.1. Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza guztietan edo zientzi emaitzok zabaldu eta ustiatzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo parte hartutako bestelako zientzia gertakariak edo patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak), UPV/EHUren filiazioa ageri beharko da, bai eta erakundearen ikusizko nortasuna ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

35.2. Ikertzaileak zein erakundetakoak diren jasota agertzeaz gain, esker onen atalean zehaztuta ageri beharko da ikerketa hori aurrera eramateko finantzazioa eman duten erakundeen zerrenda.

35.3. Ikerketa jarduerak aurrera eramanean ahala, potentzialki patentagarriak edo jabetza intelektualerako bestelako elementuen bidezko babesa jaso beharreko emaitzak sumatuko balira, emaitza hauek ikerketako errektoreordetzari jakinaraziko zaizkio, beren erregistroa egin dezan, pertsonal espezializatuak honela iritziko balio. Erregistroa egingo balitz, UPV/EHU izango da patenteen eta jabetza intelektuolari dagozkion gainerako objektuen titularra eta asmakuntzan parte hartu duten ikertzaileak asmatzaile gisa aitortuko dira. Erakunde edo eragile sozialekiko lankidetzan burututako proiektuen kasuan, titulartasun partekatua edo kasu bakoitzerako ustiapen eskubide espezifikoa negoziatuko dira, erakunde bakoitzak jarritako baliabide guztien proportzioan.

### **36. oinarria. SUBENTZIOA EMATEAREN BALDINTZEN ALDAKETA**

36.1. Ikertzaileei diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, betiere diru laguntzaren helburua bete dela ulerturik, eta ikertzaileek diru laguntzarik jasotzen badute beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian diru laguntza emateko onartutako ebazpena aldatuko duen ebazpena ekar dezake. Bertan, ondorengoa ezar daiteke:

- a. Modalitate guztietako laguntzetan, jarduerari esleitutako aurrekontua murriztea.
- b. I., II. eta III. modalitateetan, eskatzaileak jasotako laguntza guztia edo zati bat itzultzea.

36.2. Horretarako, dagokion administrazio prozedura burutuko da, eta gero, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposamena edo txostena eginda, erabakia emango da, abenduaren 17ko 698/1991 dekretuaren 4. oinarriari jarraiki. Erabakia jarduera gauzatzen duen ikertaldeko ikertzaile nagusiari jakinaraziko zaio, IV. eta V. modalitateen kasuan, eta laguntzaren titularri, berriz, I., II. eta III. modalitateen kasuan.

36.3. Honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Laguntza eman zen mugikortasunari uko egiten zaionean edo, hala behar bada, ikertzaile nagusiak jarduera egiteari uko egiten dionean, edo UPV/EHU ez den beste erakunde batera lekualdatzeak edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo eramateak arriskuan jar dezakeenean ekintza bera egitea eta aurreikusitako helburuak lortzea.
- b. Ekintza berberera egiteko beste iturri batetik heldutako diru laguntza pilatzen denean, edo behar adina justifikatu gabe ekintza beraren aldakiak aurkezten zaizkienean beste erakunde edo zentro publiko nahiz pribatu batzuei diru laguntza jasotzeko, aldeztu aurretik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian ez betetzea.
- d. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatu direnean.
- e. Gastu bera aurrekontuko atal organiko bati baino gehiagori adjudikatzen zaionean.
- f. Jarduera finantzatzeko xedez egindako deialdien barne ez dauden gastuak egitea UPV/EHUK kontrataziorako ezarritako prozedura zentralizatuak bete gabe.

### **37. oinarria. LAGUNTZA ESKURATZEN DUTENEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA**

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorreri buruzko arauari.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoaz (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoaz) ari direla.

### **AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA**

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsua jarri ahal

izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikularekin bat etorruta.

**AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioan, 2018ko otsailaren 2an

José Luis Martín González  
Ikerketaren Arloko Errektoreordea  
Vicerrector de Investigación